

1)Galderak Udaltzainari:

- Zeintzuk dira Udaltzaingoaren funtzioak?
- Zenbat Udaltzain zaudete? Zein da zuen ordutegia?
- Beste herri batzuetan bezala, beharrezkoa iruditzen zaigu Udaltzainak gauez egotea. Zergaitik ez dago gauez Udaltzainik?
- Zelan ikusten duzue herriko mugikortasuna? Zuen ustetan arazorik ba al dago?
- Zeintzuk dira herritarrok egiten ditugun arau-hauste handienak?
- Zer egiten duzue horren aurrean?
- Zenbat isun jartzen dituzue gutxi gorabehera?
- Zein da arazo handiena ematen den gunea?
- Herriko parkeak birrindurik daude. Honen aurrean zer? Zer egiten duzue?
- Zergaitik ez dira herriko zenbait tokitan, parkeak... suntsiketak saihesteko kamerak ipintzen?
- Zer da salaketa bat? Zer prozesu edo bide jarraitzen du salaketa batek?
- Zer gomendatuko zeniguke ikasleoi herriko mugikortasun arazoak gutxitzeko?

2) Kalea ikertu ondoren hurrengo arazoak aurkitu ditugu:

1. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Tamayo taberna aurreko zebrabidea.

ARAZOA: Herriko umeentzat igarobide oso garrantzitsua da: Ikastolara joateko, Institutora, polikiroldegira, musika eskolara, Kotxeak gehiegizko abiaduran ibiltzen dira eta batzutan ez dute zebrabidea errespetatzen. Bestalde, Eroski, Expert eta Tamayo tabernaren aurrean kotxeak bigarren ilaran aparkatzen dituzte bidea zeharkatzerako orduan ikuspena trabatuz.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Bi proposamen ditugu: Beste herri batzuetan bezala, zebrabidea igotzea edo semaforoak ipintzea.

2. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Txoko taberna aurreko zebrabidea.

ARAZOA: Goian aipatu dugun beste zebrabideak ez bezala, zebrabide honek berez zeharkatzerako orduan ikuspen oso txarra du eta oso arriskutsua da. Enkestetan, ia guztiek arazo bera aipatu digute.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Berez ikuspen oso txarra duenez, hoberena kentzea dela uste dugu.

3. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Herriko zebrabide guztietako espaloiak

ARAZOA: Kaleak ez dira autoentzat bakarrik egokituta egon behar. Oinezkoak ere beraien beharrak dauzkate eta oraindik ere gehiago ezinduek edo haur-kotxea, erosketa-orga... daramatenek.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Herriko espaloi guztiak zebrabideetan galtzadaren neurriraino beheratzea eskatzen dugu.

4. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Jose Maria Alcibarreko eta Tamayoko espaloiak gehienbat eta besteak beste Txurruka plaza...

ARAZOA: Espaloiak ez dira seguruak, euria egiten duenean, zenbait tokitan oso labainkorrak dira.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Badakigu lurra aldatzea oso garestia dela baina tratamendu bat egitea posible den eskatzen dugu.

5. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Tenientes txurruka kalean Garroren garajearen inguruan.

ARAZOA: Nahiz eta kotxeak aparkalekuan ongi aparkatuta egon, batzutan ibilgailuen atal zati bat espaloian sartzen da oinezkoen pasabidea oztopatuz. Ondorioz hauek oztopoa igarotzeko errepidetik zeharkatzen dute honek dakarren arriskuarekin.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Nahiz eta aparkaleku batzuk kendu kotxeak baterian aparkatu ordeztan, seriean aparkatzea eskatzen dugu.

6. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Kutxatik San Miguel kalerako igarobidea.

ARAZOA: Ezinezkoa da elbarri eta ezindu fisikoentzat hortik igarotzea.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Deban bezala, eskailera automatikoak ipintzea eskatzen dugu.

7. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Polikiroldegian.

ARAZOA: Eremuaren azken berrantolaketarekin, ibilgailu asko igarotzen dira polikiroldegi aurretik eta zenbait tokitan ez dago ibilgailuen ikuspen onik.

8. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Herriko espaloiak, parkeak eta belarguneak.

ARAZOA: Azkeneko urteetako plenoetan komentatu dugun bezala, herriko haur parkeen egoera penagarria da, jostailuak erreta eta apurtuta, belarguneak zikinak daude eta txakurren kakak espaloietan nonnahi aurki daitezke oinezkoentzat arriskutsuak izan daitezkeelarik.

Zer egin da arazo hauen inguruan?

Aplikatzen al da 1996. urteko animaliak eduki eta babesteko udal ordenantza arautzailea?

Zenbat isun ipini dira azkenengo urtean txakurren kakak direla eta?

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Beste herri batzuetan bezala, txakur kakaren ADN-a aztertzea eta esparru publikoko txikizioekin zorrotzagoak izatea.

9. PUNTU BELTZA

KOKAPENA: Orohar herriko espaloiak.

ARAZOA: Espaloiak toki batzuetan oso estuak dira, beste batzuetan ez dago espaloirik. Elbarrituentzat edo ume kotxeentzat ez dago nahiko tokirik.

Futbol-zelaiko espaloia ibiltzen den pertsona kopuruarentzat ez da nahiko zabala eta ez dago babestuta gehienbat bat haur txikiekin bazoaz.

HOBETZEKO PROPOSAMENA: Arazoa aztertzea.